

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-3425

3/2000 Legea, ekainaren 29koa, Informatikako Ingeniarrien Euskadiko Elkargo Ofiziala Sortzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondorengo Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 29KO 3/2000 LEGEA, INFORMATIKA-KO INGENIARIEN EUSKADIKO ELKARGO OFIZIALA SORTZEKOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Konstituzioko 36. eta 139. artikuluetan xedaturikoa baztertu gabe, Autonomia Estatutuko 10.22 artikulua- ren arabera, profesionalen elkargoen eta lanbide titulu- dunen inguruko eskumen guztiak Euskal Autonomia Erkidegoarenak dira. Estatutuko artikulua horri jarrai- ki onartu zen 18/1997 Legea, azaroaren 21ekoa, Titu- ludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontsei- luei buruzkoa. Eta, lege horrek 29. artikuluan dioenez, profesionalen elkargo berririk sortzeko, Eusko Legebil- tzarraren lege bat beharko da. Lege hori profesionalak berek eskatu beharko dute eta eskariak haiek ordezkaz- teko nahikoa indar eduki beharko du eta behar beza- la egiaztaturik egon beharko du.

1998ko urtarrilaren 16an, Informatikako Doktore, Lizentziatu eta Ingeniarrien Euskadiko Elkartek hartar- ako propio eraturako batzar batek, batzar sustatzaileak, Informatikako Ingeniarrien Elkargoa sortzeko eskatu zuen. Segidan, eskaria arrazoizkoa ote zen eta legezko baldintzak betetzen ote ziren egiaztatzeko izapide- lanei ekin zitzaion, eta bete beharreko baldintza nagusie- tako bat honako hau zen: interes publikoko nahikoa arrazoirik ba ote zegoen lanbide horretako elkargo bat sortzeko.

Informatikako ikasketak otsailaren 26ko 327/1976 Dekretu bidez bihurtu ziren, ofizialki, unibertsitateko ikasketa. Dekretu horrek Informatikako fakultateak sortu zituen eta bi titulu ezarri zituen han ikasi nahi zutenentzat: Informatikako doktore eta lizentziatuare- nak. Gerora, urriaren 26ko 1.459/1990 Errege Dekre- tuak Informatikako ingeniarien unibertsitate-titulu ofi- ziala sortu zuen eta titulu hori lortzeko ikasketa-pla- nen norabide orokorrak ere onartu zituen. Beste alde ba- tetik, irailaren 30eko 1.954/1994 Errege Dekretuak ti- tulu hori Informatikako lizentziatuenekin parekatu zuen. Hortaz, nahikoa egiaztaturik dago tituluaren be- harra, alegia azaroaren 21eko 18/1997 Legean, Titulu- dun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontsei- luei buruzkoan, 23. artikuluan, ezarrita zegoen baldin- tza.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-3425

LEY 3/2000, de 29 de junio, de creación del Colegio de Ingenieros en Informática del País Vasco.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Eus- kadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley si- guiente Ley:

LEY 3/2000, DE 29 DE JUNIO, DE CREACIÓN DEL COLEGIO DE INGENIEROS EN INFORMÁTICA DEL PAÍS VASCO.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía atri- buye a la Comunidad Autónoma del País Vasco com- petencia exclusiva en materia de colegios profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitu- ción. En su virtud se dictó la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de co- legios y consejos profesionales, la cual establece en su artículo 29 que la creación de nuevos colegios profesio- nales precisará ley del Parlamento Vasco a petición su- ficientemente representativa y debidamente acreditada de lo/as profesionales interesado/as.

Con fecha 16 de enero de 1998, la junta promotora constituida a tal efecto por la Asociación de Doctores, Licenciados e Ingenieros en Informática -ALI- de Eus- kadi solicitó la creación del Colegio de Ingenieros en Informática, dando lugar a la oportuna tramitación en- caminada a la verificación del fundamento de la peti- ción formulada y de los requisitos legalmente exigibles, entre los que destaca la concurrencia de suficientes ra- zones de interés público que justifiquen el carácter co- legiado de la profesión.

Los estudios de informática obtuvieron la oficialidad de su docencia de carácter universitario mediante el De- creto 327/1976, de 26 de febrero, que creaba las Facul- tades de Informática, estableciendo para quienes cursa- ran estudios en estos centros los títulos de Doctor y Li- cenciado en Informática. Posteriormente, el Real De- creto 1.459/1990, de 26 de octubre, estableció el títu- lo universitario oficial de Ingeniero en Informática y aprobó las directrices generales propias de los planes de estudios conducentes a su obtención. Por otra parte, el Real Decreto 1.954/1994, de 30 de septiembre, homo- logó dicho título con el de Licenciado en Informática. Queda suficientemente acreditado, por tanto, el requi- sito de titulación exigido en el artículo 23 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesio- nes tituladas y de colegios y consejos profesionales.

Gaur egungo gizartean informatikak geroz eta garrantzi handiagoa dauka, eta informatika hori kontrolatzeko eta erabiltzeko ardura duten profesionalak ere bai. Horregatik, elkargo ofizial bat sortzeko premia dago, gizartearen interes orokorrak eta profesional horien interes bereziak zuzen babesteko. Hainbat arrazoi edo helburu dago –eta helburuak lortzeko, tresna egokiren bat behar–, denon interesaren ikuspuntutik, korporazio profesional hori sortzeko; honako hauek, besteak beste: lanbidea denon onerako antolatzea eta deontologia ere horrelaxe arautzea; informatika bidez egiten diren gehiegikerien aurka borrokatzea, eta datu pertsonalak erabili behar direnean begirunez egin beharra bultzatzea.

1. artikulua.– Sorrera.

1.– Sortu egin da Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofiziala. Zuzenbide publikoko korporazio bat da, nortasun juridiko propioa dauka, eta bere helburuak eta eginkizunak betetzeko gaitasun osoa ere bai, legearen barruan betiere.

2.– Lege honetan ezarritakoari eutsiz gobernu-organismoak osatzen direnetik aurrera izango ditu elkargoak nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa.

2. artikulua.– Norako den.

Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofiziala Euskal Autonomia Erkidegorako da.

3. artikulua.– Norentzako den.

Informatikako ingeniari edo Informatikako lizentziatuen titulua dutenak sar daitezke Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofizialean, baldin eta titulu horiek urriaren 26ko 1.459/1990 Errege Dekretuan eta irailaren 30eko 1.954/1994 Errege Dekretuan xedaturikoaren arabera lortuak badira. Orobat, eskumena daukan aginteak homologaturiko beste edozein titulu dutenak ere sar daitezke elkargo horretan.

4. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrarekiko harremanak.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legeko 56.1 artikulua baztertu gabe (lanbideari buruzko gai orokorretan, erakunde arteko gaietan eta elkargoei buruzko gaietan harremanik izateko eskumena duen administrazio-organismoari dagokio artikulua hori), Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargoak Euskadiko Administrazio orokorrera jo behar badu bere lanbidearekin zerikusia duen zerbaitekin, harreman horiek Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren bitartez izan beharko ditu, edo, momentu horretan informatikako eskumenak beste sailen baten esku badaude, hareekin.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Estatutuak.

Euskadiko Informatikako Doktore, Lizentziatu eta Ingeniarien Elkarteak sei hilabeteko epea izango du, le-

La creciente importancia de la informática en la sociedad actual y lo/as profesionales responsables de su adecuado control y utilización reclaman la creación de un colegio oficial que sirva eficazmente a los intereses generales de la sociedad y los particulares de dichos profesionales. La necesidad de una ordenación profesional y regulación deontológica al servicio de la colectividad, la lucha contra los usos abusivos informáticos y el impulso en el respeto en materia de tratamiento de datos de carácter personal son algunos de los aspectos que justifican suficientemente, desde el punto de vista del interés público, la creación de esta corporación profesional, como organización instrumental eficaz para su consecución.

Artículo 1.– Creación.

1.– Se crea el Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco, como corporación de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines y el ejercicio de sus funciones con sujeción a la ley.

2.– La adquisición de personalidad jurídica y de plena capacidad de obrar se producirá a partir del momento en el que, conforme a lo dispuesto en la presente ley, se constituyan los órganos de gobierno del Colegio.

Artículo 2.– Ámbito territorial.

El ámbito territorial del Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco es el de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 3.– Ámbito personal.

En el Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco se podrán integrar aquello/as profesionales que se encuentren en posesión de la titulación de Ingeniero/a en Informática o Licenciado/a en Informática obtenida de conformidad con lo dispuesto en los Reales Decretos 1.459/1990, de 26 de octubre, y 1954/1994, de 30 de septiembre, o de cualquier otra homologada por la autoridad competente.

Artículo 4.– Relaciones con la Administración General del País Vasco.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 56.1 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, sobre el órgano administrativo de relación competente en los aspectos profesionales generales, institucionales y corporativos, el Colegio Oficial de Ingenieros en Informática del País Vasco se relacionará con la Administración General del País Vasco en los aspectos relativos a los contenidos de su profesión a través del Departamento de Hacienda y Administración Pública o del que en su día ejerza las competencias en materia informática.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Estatutos.

La Asociación de Doctores, Licenciados e Ingenieros en Informática -ALI- de Euskadi elaborará los Estatu-

ge hau indarrean jartzen denetik, elkargoko estatutuak egiteko. Estatutu horiek onartu ondoren, Euskadiko Administrazio orokorrari helarazi behar zaizkio justizi gaietan eskumena duen sailaren bitartez, hark legea betetzen ote duten azter dezan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agin dezan.

Bigarrena. – Elkargoan izena emateko epea.

Behin estatutuak argitaratu ondoren, elkargoan izena emateko epe bat zabalduko da, baldintzak betetzen dituzten guztiek elkargoko kideak izateko aukera izan dezaten. Epe horren hasiera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko egunkari zabalduenetako bitan argitaratu beharko da.

Hirugarrena. – Gobernu-organoak osatzea.

Elkargoan izena emateko epea amaitu ondoren, elkargoak osoko bilkura baterako deia egin beharko du, gobernu-organoak nork osatuko dituzten kideak aukeratzeko. Gobernu-organoak osatze hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Laugarrena. – Noiztik aurrera indarrean.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko uztailaren 13a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARU.

tos del Colegio en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de esta ley. Una vez aprobados se comunicarán a la Administración General del País Vasco, a través del Departamento competente en materia de Justicia, para verificar su adecuación a la legalidad y ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda. – Período de colegiación.

Una vez publicados los Estatutos, se abrirá un período de colegiación para posibilitar la adquisición de la condición de colegiado/a a todo/as aquello/as que reúnan los requisitos exigidos al efecto. La apertura de dicho período se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y en, al menos, dos de los periódicos de mayor difusión en la Comunidad Autónoma.

Tercera. – Constitución de los órganos de gobierno.

Una vez concluido el periodo de colegiación, se convocará al órgano plenario del Colegio al objeto de proceder a la elección de los miembros integrantes de los órganos de gobierno. La constitución de los órganos de gobierno será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarta. – Vigencia.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARU.